

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAREN ETA AZPEITIKOOP. KOOP.S.REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, KOOPERATIBISMOAREN SUSTAPENERAKO

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 13an.

AGERTU DIRA

Alde batetik: Francisco Javier Olabarria Furundarena jauna, lehendakari gisa, **Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren** izenean eta hura ordezkatzuz,

Eta bestetik: Enekoitz Esnaola Karrera, **AZPEITIKOOP, KOOP.S.ren** izenean eta hura ordezkatzuz.

Alderdiek elkarri aitortzen diote zer izaerarekin parte hartzen duten, eta hau

AZALTZEN DUTE

Lehena. AZPEITIKOOP, KOOP. S. (aurrerantzean AZPEITIKOOP) bigarren mailako kooperatiba da, eta Azpeitian kooperatibismoa sustatzea da bere jarduera, bertan ekosistema kooperatibo handia baitago, kooperatiba eta kooperatibista askorekin. AZPEITIKOOPek kooperatibismo hori indartu nahi du bere jarduerarekin, kooperatibismoaren balioak partekatzen dituzten beste eragile batzuekin batera. Hitz batean, AZPEITIKOOPek Azpeitian komunitate kooperatiboa prestatu eta indartu nahi du onura sozial eta ekonomikorako, horrek guztiak herria eta herritarrak eraldatzen jarraitzeko balio dezan.

Bigarrena. AZPEITIKOOPen ildo estrategikoen artean honako hauek daude:

- Lehen ildoak: ‘Espazioak kooperatibizatzea’. Aurreikusten da kooperatiba berriak sustatzea, eragileak animatzea proiektuak gara ditzaten, eta dagoeneko hasitakoak kooperatiba bihurtzea.
- Bigarren ildoak: ‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’. Aurreikusten da AZPEITIKOOPek zuzeneko zeregina edukiko duela garatutako proiektuen aplikazioan. Horretarako, balio kooperatiboak landu nahi dira, hezkuntzaren, lankidetzaren eta erakundeekiko harremanaren bidez, komunitatean kooperatibismoa transmititzeko eta komunitatea kooperatibismoaz sentsibilizatzeko.

Hirugarrena. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak (aurrerantzean Kontseilua), euskal kooperatibismoa sustatzeko eta hedatzeko erakunde gorenak, enpresa errealitate hori sustatzeko eta bultzatzeko ekintzak beharrezkoak direla ohartuta, kooperatibismoa sustatzeko lan hori egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzen da, eta bere ustez AZPEITIKOOP horietako bat da.

Laugarrena. Kontseiluaren 2026ko maiatzaren 13ko Osoko Bilkurak sei mila (6.000) euro bideratu zituen AZPEITIKOOPek 2026an gauzatuko dituen proiektuak finantzatzeko.

Bosgarrena. Kontseiluak, 2025eko ekitaldian, Koop2040 Gogoeta Foroaren ondorioz, ildo estrategiko batzuk landu zituen, eta bere asmoa da AZPEITIKOOPen jarduketak ildo estrategiko horien baitan sartzea.

Seigarrena. Aurreko puntuan azaltzen denari dagokionez, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, betiere Koop2040ko ildo estrategikoan,

FAECetik datorren zuzeneko laguntza bat erabili nahi du, lankidetzaren hitzarmen hau baliatuz, zeina honako klausula hauen arabera arautuko den:

KLAUSULAK

LEHENA - Arau esparrua

Hitzarmen honetan jasotzen diren baldintzak kooperatibismoa sustatzeko jardueren finantzaketa zehazteari buruz Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2026ko otsailaren 12an egindako osoko bilkuran ezarritako esparruan sartzen dira, eta finantzaketa zehatza 2019ko aurrekontuan jasota geratu da. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen duen maiatzaren 11ko 213/1999 Dekretuaren 14. artikulua ezartzen duen autonomia ekonomiko eta finantzarioaren printzipioan oinarrituta erabaki zen funtsak jartzea.

BIGARRENA - Xedea

Hitzarmen honen helburua da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak AZPEITIKOOpek kooperatibismoa sustatzeko jardueretan finantzaketan parte hartzea.

HIRUGARRENA - KOOP 2040ren esparruan Kontseiluak finantzatzeko dituen jardueren zerrenda zehatza

KOOP2040en definitutako ildo estrategikoen esparruan eta AZPEITIKOOPen jardura ardatzekin koherentzia, partzialki finantzatu beharreko jarduerak jardute ildo hauetan egituratzen dira:

- Lehen ildoak: 'Espazioak kooperatibizatzea'. Kooperatiba berriak sustatzea, eragileak animatuz proiektuak gara

ditzaten. Asmo bat da gune nazional bat sortzea, euskararen erabilera eta ahozketasuna sustatzeko (Euskal Herriko ikasle eta familiak, barnetegia, museo interakratiboa...).

- Bigarren ildoak: ‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’. Beste erakunde batzuekin lankidetzan, egitasmoen bidez balio kooperatiboak lantzea hezkuntzan, lehen sektorean, komunikazioan...

LAUGARRENA - Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren ekarpena

Aurreko klausulan azaldutako ekintzak egiteko, Kontseiluak laguntza finantzario bat emango du. Gehienez ere sei mila (6.000) euroko laguntza izango du orokorrean, eta diru hori Kontseiluak 2026rako duen aurrekontuko partidaren kargura izango da.

Zailtasun operatiboak edo logistikoak direla-eta, diruz lagundu daitezkeen ekintza ezingo balitz guztiz edo partzialki egin, emandako dirua itzuli beharko litzateke edo laguntza zuzenduko litzateke ekintzatik egindako partearen heinean.

BOSGARRENA - Diruz lagundutako ekintzaren publizitatea

Diruz lagundutako jardueraren komunikaziorako elementu guztietan berariaz aipatu beharko da Kontseiluak horretarako laguntza ematen duela, eta “KOOPERATIBEN KONTSEILUA”ren logoa eta “babesle” hitza eramango dituzte.

SEIGARRENA – Jarraipena eta koordinazioa

Kontseiluak, Belen Balerdi idazkari teknikoaren bitartez, diruz lagundutako jarduera koordinatu, jarraitu, gainbegiratu, aurreikusi eta

ikuskatu dezake, Lankidetzaren hitzarmenaren fase guztietan, hau da, hitzarmenaren prestakuntza faseetik hitzarmena bukatu bitartean, eragina duelakoan edo eduki dezakeelakoan. Hitzarmen honetan deskribatutako ekintzen kontrolerako eta jarraipenerako, AZPEITIKOOPEk Mikel Ugarte Soraluze izendatzen du Kontseiluaren aurrean ekintzen arduradun. Aurreko guztia alde batera utzita, behartuta dago, beti, Hitzarmen honetan sartuta dauden jardueren xedea, izaera edo baldintzak aldatu edo horietan eragina duten gorabeheren berri ematera Idazkaritza Teknikoari, berariaz eta berehala.

ZAZPIGARRENA - Bukaerako memoria eta dirulaguntzaren azken zenbatekoa erabakitzea

AZPEITIKOOPEk txosten bat egin beharko du, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren finantzaketaren kargura deskribatutako proiektu eta ekintza bakoitzaren gauzatzea zehazteko. Txosten hori 2027ko lehen hiruhilekoan bidali beharko zaio Kontseiluari.

ZORTZIGARRENA - Suntsiarazteko arrazoiak eta bermeak

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak izango dira hitzarmen honetan jasotako klausulak eta, hitzarmenaren izaeraren ondorioz, aplikatzekoa den legerian jasotako beste edozein ere ez betetzea. Berme eta itzulketen araubideari dagokionez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, 1992ko otsailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (26 zk.) argitaratutakoan, ezarritakoa aplikatuko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen da, eta haien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dira.

BEDERATZIGARRENA - Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta **urte bateko (1) indarraldia** izango du, 2026ko abenduaren 31ra arte.

Ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Izpta.: Francisco Javier Olabarria Furundarena jauna

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

Izpta.: Enekoitz Esnaola Karrera jauna

AZPEITIKOOP, KOOP. S. IDAZKARIA

34105845L Firmado
ENEKOITZ digitalmente por
ESNAOLA 34105845L
(R: ENEKOITZ
F22816698) ESNAOLA (R:
F22816698) F22816698)
Fecha: 2026.05.13
11:07:11 +02'00'